

Bizitzako erabakia egun bakar batean

Itsaso zabala, non bukatuko ote da, urdin-urdina... Horren atzean ez da ura bakarrik ezkututzen, ezta gutxiagorik ere. Bizitza, pirata ausarten sentimendu galduak eta gehiago ere. Abenturak, zirrara eta...bai, hori da! Euren ametsen atzetik dabilzan marinela eta piratak.

“Ipar mendebaldeko haize leunak aurpegia laztantzen dit, baina euria dakar; bai, ekaitza dirudi. Itsasoa lurrean barneratzen ari da guztiz zakarki, eta ni lurrari loturik nago ezin mugiturik. Kapa beltz batez estalitako gizon bat hurbiltzen ari zait pixkanaka-pixkanaka, eta niganaino heltzean, niri bultza egin eta amildegi ilun eta beltzean murgildu naiz...”

-Aaaaaaaa!!!!!!- egin nuen garrasi- Arraioa! Berriz ere amets berbera izan dut.

Ohetik jaiki eta nire ahizpa Lili esnatu nuen gosaltzera joateko; bertan, ama Belemere zegoen gosaria prestatzen eta gainerako lanak egiten.

Benoa, oraindik ez dizuet neure burua aurkeztu. Ni Kaia naiz, eta nire ama Belemere eta ahizpa Lili-rekin bizi nintzen. Belemerek, ni txikia nintzela, erreka ondoan zegoen saskitxo batean aurkitu ninduen, eta eskuak zabalik jaso ninduen. Horregatik, nire ama munduan gehien maite nuen pertsona zen.

Berak, ile gorria zuen nire antzera, baina nire amak nahiko luzea eta ondulatua zeraman. Egunsentian, gure gelako leihotik lehen eguzki-izpiak bere ile leunean islatzen zirenean, hasten zen niretzat eguna. Begi marroiak zituen, egurraren kolorekoak; baina eguraldi onarekin, argitu egiten zitzaizkion niri ez bezala, izan ere, berdeak ziren nire begiak. Garbi dago gu bion ADN-ak ez zuela zerikusirik, baina onartu beharra dago zenbait gauzetan, edo hobe esanda, gauza askotan antza genuela.

Belemere ez zen oso handia, 1'66 inguru neurtuko zuen eta argala zen, baina bihotz handikoa; ezagutu nuen egunetik: argia, eskuzabala, zintzoa...

Osaba Ttottok esaten zuenez (Belemereren anaia nagusia) *“karguak eta ospeak ez du gizakia handia egiten, egintza onak baizik”*.

Lili niretzat beti ahizpa zaharrena izan da, bere ekintza onak asko erakutsi zidaten. Berak 18 urte zituen eta nik, berriz, 16 betetzeko. Nik ez bezala, azala ilea bezain zuria zeukan eta begiak grisaxka kolorekoak. Azken batean, ni ez nintzen odol berekoa.

Berak erakutsi zizkidan egun dakizkidan gauza asko egiten: etxean laguntzen, uharteko herri eta zoko guztietatik miatzen, marrubiak sailkatzen...

Hego mendebaldeko itsasoko uharte emankor batean bizi ginen, bertako herri txikian, Brainlainen. Ez zen jende gehiegi bizi, mila pertsona inguru, baina denak oso ondo ezagutzen genuen elkar.

Belemere eta guk, marrubi soro bat geneukan etxearen atzeko lur sailean, hori baitzen dirua ateratzeko modu bakarra, eta horregatik, txiki-txikitatik nik eta Lilik gogo handiz lagundu izan genion Belemereri. Izan ere, berarentzat beti izan naiz gastu estra bat, baina berari ez zitzaion axola; berak beti esan ohi zuen nahikoa zuela gure irribarrearekin zoriontsu izateko.

Nire bizitza, ez zen bost izarrekoa, ezta behar ere, baina nuen guztia nirekin eskuzabala izan zen emakume apartari zor nion.

Osaba "Ttotto", herriko liburutegiko arduraduna zen. Bere garaian, gerran ibilitakoa eta horrexegatik zuen aurpegi osoa orbanez bete. Buru gainean beti eraman ohi zuen kapela zahar bat, erdian errotatxo bat zuelarik. Nire amak zioen hurrei barre eragiteko zela.

Herriko-liburutegia ez zen beste munduko ezer, txikia zen, baina oso polita. Egur ilunezko apal klasikoak zeuzkan eta paretak, paper zuri ajeatu batez estaliak. Apalak oso zaharrak ziren, baina bernizatu berriak zeuden eta liburu eta mapa interesgarriak beteak. Osaba "Ttottok" diru asko erabili zuen bertako paretetan zeuden mapa eta koadro baliotsuak erosten eta baita libururik onenak lortzen ere. Horregatik, nire egunaren zatitxo bat eskaintzen nuen liburutegira joanez: osabari laguntzera, liburuak hartzera...

Baina oraindik ez dizuet txiki-txikitatik izan dudan ametsa aipatu ere egin. Normalean liburutegitik geografiari buruzko liburuak edo entziklopediak hartu izan ohi nituen mapekin batera. Nire ametsa *"lau itsasoetan zehar nabigatu eta ozeano eta uharte guztien mapa egitea da, labur esanda, urdin-urdinaren mapa osoa marraztea"*.



Dena egun bateko kontua izan zen, ekainaren 9-koa, hain zuzen ere. Larunbata zen eta eguraldi kaxkarra egiten zuen, baina jaieguna zenez, irteera bat egin behar genuen familiarekin. Lilik ez zuen joan nahi; izan ere, denboraldi hartan ez baikenbiltzan oso ondo diruz. Jakina denez, berak etxean lagundu nahi zuen, baina Belemerek hauxe erantzun zion irribarre batekin:

- Bizitzan lana eginez lortu behar ditugu beharrezkoak ditugun gauzak, baina hori bezain garrantzitsua da ondo pasatzea - eta Lilik baieztatu keinu egin zion buruaz.

Etxetik irten eta segituan erabaki genuen geure uharte txikitik osteratxo bat egingo genuela lasai-lasai. Nik beti eramaten nuen agenda txiki bat axota urdinarekin batera gabardinako edo praketako poltsikoan: oharrak, enkarguak, zirriborroak (marrazkiak) etab. apuntatzeko. Herritik urruntzen ari ginen heinean, gero eta garbiagoa zen iparraldean ageri zen puntu beltza. Belemerek, urruti zebilen belaontziren bat zela esan zigun. Baina gerturatzeko ari zen heinean, konturatu nintzen puntu hura ez zela belaontzi bat... ontziak BANDERA BELTZA zeraman! Piraten ontzia zen, alajaina!

Hirurok korrika irten ginen herrirantz. Brainlainen, piratek ez zuten oso fama ona, egia esateko, gure etsairik handienak ziren. Duela 50 urte, pirata talde bat uhartera iritsi eta bertako aberastasun guztiak ostu zituzten eta ondoren, herrixka osoa erre.

Arnas estuarekin iritsi ginen herrixkara eta berehala udaletxerantz joan ginen, herriko alkateari gertatutakoa kontatzera.

Alkateari herriko zaharra deitzen zioten, jada hamar urte zeramatzalako alkatetzan, 68 urterekin hasi eta 78 urte arte. Berria entzundakoan, begiak ireki eta arnasarik gabe gelditu zen. Galeoiaren bandera beltza ikusi genuenetik bi minutu besterik ez zirela igaro iruditu zitzaidan.

Alkateak herritarrei hondamendiaren berri jakinaraztea agindu zuen, baina garapeneko zinegotziak kontra egin zuen:

- Ez al zarete ohartzen?- esan zuen izu aurpegiaraz- Oharpean jartzen baditugu herritarrak, izua nagusituko da herrian eta ikaraturik jendea uhartetik ihes egiten saiatuko da. Hortik aurrera galduta gaude.
- Arrazoi du- esan zuen Belemerek.

Alkateak orduan:

- Portua bonbardatuko dugu eta horrela ezingo dute aingu...- eta esaldia bukatzeko astirik izan gabe, Lili atetik sartu zen eta hauxe esan zuen:
- Piratak herrian dira!

Eta euli batek hegotei eragiteko denbora izan gabe irten ginen plaza nagusira. Momentu hartan ez nuen ikusi harrituko ninduen hondamendirik, egia esan, piratek ez zuten inongo ezbeharririk eragin. Taldeko kapitaina eta ofizial ordeak ziruditen bi gizon garai gerturatu ziren udaletxerantz pauso motelean.

“Herriko zaharrak” pauso bat eman zuen aurrerantz:

- Zer nahi duzue gure herriarengandik? - galdetu zuen alkateak.
- Entzun dut, Braindlain-eko altxor ezkutuen berri, eta... beno, ba...- kontatu zuen kapitainak - Nahikoa da, badakizu, altxorrak nahi ditugu, eta orain!

Alkateari izerdi tanta bat jausi zitzaion kokotsetik, eta disimulatu nahian hitz egiten hasi zen:

- Zer altxor ezkutu, zer dira kontu horiek? - esan zuen itxura arraro zuen ofizial-ordeari begira – gure uhartean ez dago inongo altxorrik.
 - Aspertu naiz jada! - esan zuen beste ofizial-ordeak.
- Orduan, gabardinatik errebolberra atera eta herriko alkatearengana zuzendu zuen.
- Altxorrak hona ekartzen dituzu edo badakizu zer datorkizun – abisatu zion gizonak.

Momentu hartan bertan, tiro bat entzun zen urrunean, balak pirata taldeko ofizial-ordea jo eta lurrera erori zen seko. Denek tiroa jaurti zen lekura begiratu zuten eta guztiok gauza bera ikusi genuen... Marinaren ikurra zen, harri eta zur geratu ginen denok, marinela herrixkan ziren, eta ez zen edonolako espedizioa: bi gerraontzi eta hiru galeoiz osatutako eskadroia. Jakina zenez, piratek ziztu bizian alde egin zuten.

- Hassopp frankotiratzaila da, marinako soldadu trebeena - egin zuen oihu gizon batek- 200m-ko distantziatik gizon bat jotzeko gai da, gainera, 15kg pisatzen duen metro eta erdiko eskopeta darama.

Portuan aingura bota eta herrirantz abiatu ziren ziztu batean. Marinelen pausu hotsa urrutitik entzun zitekeen: Trakatan – Trakatan – Trakatan...!

Ezin nuen neure begiek ikusten zutena sinistu, marinelen kontseiluko buruzagi ordea eta bere eskadroia Braindlain-en! Herritarrek, piratengandik babestera zetoze eta pentsatu zuten, baina ni ez nengoen hain ziur. Izan ere, piratak herrira heldu eta handik 10 minutura beraiek iritsi ziren, eta ez zuen zentzu handirik bi gerraontzi eta hiru galeoi ekartzea pirata talde bakarra mendean hartzeko. Beste arrazoiren bat izango zuten.

Tashigi almirantea eta Dolton buruzagi ordea herriko plaza nagusirantz abiatu ziren beren gizonekin. Alkatearen parera heltzean, Doltonen aurrean belaunikatu ginen:

- Zer dela eta zuen presentzia agurgarria gure herri xume honetan? - galdetu zuen alkateak.
- *Bai, ikusiko duzue zein agurgarria, legez kontra eduki dituzuen altxorrak kentzen dizkizuegunean...* - xuxurlatu zuen Tashigi almiranteak.

- Xo! - oihu egin zuen Doltonek.

Gabardinatik pergamino bat atera eta irakurtzen hasi zen: “ Legeak dioenez, edozein uhartetan aurkitutako altxorrek edo gauza baliotsuak gobernu zentralari dagozkio; beraz, altxor horiek gordetzea edo norberarentzat hartzea guztiz legez kontrakoa da. Eta delitu horregatik 10.000.000 franko-ko isuna ordaindu beharko da edo herio zigorra jarriko zaio”.

- Beno, pergamino honetan argi dioenez, Baraindlain-ek ehunka urtetan gordeta izan dituen altxorrek guri dagozkigu eta honen guztiaren erruduna azaldu ezean, uhartea suntsituko dugu goitik behera. - esan zuen Doltonek harro.
- Ezin duzue halakorik egin! Uharteko altxorrek gure izerdiaz lortu eta babestu ditugu... orain zuek etorri eta hala nola eramateko...? Ba entzun ondo, gurekin jai duzue! - egin nuen oihu.

Momentu horretan errudun sentitu nintzen, baina gobernu kideak ez zebiltzan txantxetan eta ezin genien engainatu:

- Arrazoi du, altxor horiek guztiak herriarenak dira, eta ez beste inorenak! - esan zuen sastraka artetik irten zen gazte batek. Eta berarekin batera, bandera beltz bat azaldu zen portuan.
- Hil itzazue bi pirata horiek. Esan dizuegu altxorrek non dauden esan ezean, ondorioak izango zirela! –

Orduan, Tashigik errebolbera atera eta niri bularrera apuntatu zuen.

Alkateak ,urduri, pausu bat eman zuen aurrerantz eta hauxe esan zuen:

- Jaitsi pistola, ni neu naiz honen guztiaren erruduna. Altxorrek non dauden esango dizuet.
- Madarikatua...! Esatera behartu duzue! - esan zuen mutil gazteak, eta Tashigirengana abiatu zen.

Bat-batean, beste gazte bitxi bat azaldu zen sastrakatatik, begietan kataleju moduko betaurreko batzuk zeramatzala, eta puztarri bat zirudien bola beltza eskuan. Eskua atzeraka eraman eta puztarria jaurti zuen guganantz. Tximista baten abiadura baino azkarrago, plaza osoa ke beltz astun batez estalia geratu zen. Tiro batek sorbaldan jo ondoren, lurrera erori eta konortea galdu nuen...

Esnatu nintzenean, nire gelako ohean etzanda nengoen, buruan milaka txinparta biraka nituelarik eta gorputz osoa sorgortuta. Nire inguruan Belemere eta lau gizon ezezagunek inguratzen ninduten, egia esan, horietako bi ez zitzaizkidan oso ezezagunak egiten, lehentxeago ikusi nituela esango nuke.

Berehalaxe, Belemere hitz egiten hasi zen:

- Beno, badirudi zeure onera itzuli zarela. Ez dakit nondik hasi... ez dio axola! Hauek marinelandik salbatu gaituzten pirata talde abegitsua da, ez da erraza ulertzea baina egia da, gazte hauek marinelen eskadroi osoa garaitu eta uhartetik ihes egin behar izan dute – argitu zuen Belemerek.
- Kaixo, ni Frank naiz, pirata taldeko kapitaina. Arrazoituz eta kemenez babestu dituzu altxorrek eta zure herria... Hau ,berriz, Thomas da, taldeko asmatzailea, gehienbat iruzurretan eta bolboran da aditua... Beste hau taldeko ezpataria dugu, Nico. Laster munduko ezpatari onena izango da... Han dabilen ilehoriaren izena Phillip da eta tripulazioko sukaldari aparta da, munduko platerarik onenak prestatzen ditu. Eta gainerako tripulazioko kideak kanpoan dira. - azaldu zidan Frank-ek.

Frank-ek bukatu bezain pronto, Belemerek elkarrizketarekin jarraitu zuen, nik denen aurpegiak gogoratzeko denborarik izan gabe:

- Zu esnatu baina lehenago, Frank-ek proposamen bat egin dit "Konturatu naiz zure betiko ametsa zazpi itsasoetan barna nabigatzea dela eta ozeano eta uharte guztien mapa marraztea". Gure tripulazioan nabigatzen dakien norbait behar dugu eta zu uharte honetan geratuz, ez duzula inoiz zure ametsa betetzeko aukerarik izango pentsatu dut... Beraz, nahi baduzu gurekin etor zaitezkeela esan nahi dizugu"

Harri eta zur gelditu nintzen hura entzun nuenean, burua nahastuta neukan. Alde batetik, une horretan ezagutu nituen pirata batzuek eurekin joateko eskatu zidaten! Bestetik, Belemere eta Lilibereandik urrutiratzeak pena ematen zidan. Ez nekien zer egin.

Bestalde, argi zegoen bihotz onekoak zirela, uharte babestu baitzuten, eta Frank-ek arrazoiak zuen. Ezingo nuen nire ametsa bete uhartetik atera gabe:

- Etorri gurekin, oso ondo pasako dugu eta abentura askotan parte hartuko duzu! - esan zidan kapitainak, behin eta berriz. Azkenean, Belemerek baiezkoko keinua egin zidan buruarekin eta denbora luzez hausnartu ondoren, piratekin joatea erabaki nuen.

Ez dakizue nola poztu ziren taldean proposamena onartu nuenean, batez ere Frank kapitaina:

- Entzun guztiok, berri on bat eman behar dizuet, Kaiak gurekin etorriko dela erabaki du. Bihar bertan abiatuko gara itsaso zabalera!

Gaua luzea izan zen, festa eta parranda alai herritar guztientzat, baina batez ere pirata ausart haientzat. Egunsentian abiatu aurretik, nire gauzak jaso eta beharrezkoa nuen guztia maletan sartu nuen, ezer ahaztu gabe, eta nire familiako lau kideek (Lili, Belemere, Ttoto eta ni) agertzen ginen argazki bat ere hartu nuen. Belemere, Lili eta osaba Ttoto agurtu nituen irten aurretik.

- Egon lasai, dena ongi aterako da, gazte hauek oso indartsuak dira eta zainduko zaituzte. Gainera, nahi duzuenean itzul zaitezke uhartera, hemen egongo gara zuen zain, eskuak zabalik.- esan zidan Belemerek urduri.
- Aprobetxatu, horrelako aukerak bizitzan behin suertatzen dira! - eta besarkatu ondoren, ontzira igo nintzen.

Beldur pixka bat neukan, baina *banekien noizbait itzuliko nintzela nire uharte maitera...*

Agur Belemere edo... gero arte!

Muskildu